

a) BEGIRA HURRENGO ESALDIEI ETA JAR EZAZU HUTSUNEAN SUBJEKTUA, ONDOKOETATIK BAT AUKERATUZ:

Ikasle horiek, postari hori, Ander, Bilbo, Faraoiak, Ni

- \_\_\_\_\_ laster etorriko da.
- \_\_\_\_\_ haserretu dira.
- \_\_\_\_\_ motorrez ibiltzen da.
- \_\_\_\_\_ hiri modernoa da.
- \_\_ \_ ez naiz etxetik irtengo.
- \_\_\_\_\_ Egipton bizi ziren.

Ohar zaitetz goiko esaldietako subjektuek ez daukatela objekturik (osagarri zuzenik). Euren aditzak ere bereziak dira: denek behar dute NOR subjektuan.

Osa ezazu NOR sintagmako multzo hauek:

NOR {

- hau, hori, \_\_\_\_\_ . (singularra)
- hauek, \_\_\_\_\_ , \_\_\_\_\_ . (plurala)
- ni, bera, \_\_\_\_\_ , \_\_\_\_\_ , \_\_\_\_\_ .
- etxea (sing.); \_\_\_\_\_ . (plur.)
- Bilbo, ...

ORAIN JARRI SUBJEKTUA HURRENGO ESALDIEI

1. \_\_\_\_\_ ere gurekin geratu da.
2. \_\_\_\_\_ ez gara joango jaialdira.
3. \_\_\_\_\_ herri oso polita da.
4. \_\_\_\_\_ oraintxe sartu dira.
5. \_\_\_\_\_ ere ba omen dator.
6. \_\_\_\_\_ leku guztietan daude.
7. \_\_\_\_\_ ez naiz pertsonaia horrekin identifikatzen.
8. \_\_\_\_\_ korrika dabil saguen atzetik.
9. \_\_\_\_\_ alderik alde zabalik zeuden.
10. \_\_\_\_\_ jokalaria ona da.



b) BEGIRA ORAIN HURRENGOEI ETA AUKERA EZAZU SUBJEKTU BANA ONDOKOETATIK BAT ERABILIZ:

Postari horrek, Anderrek, Faraioiek, Nik, Bilbok, Ikasle horiek.

- \_\_\_\_\_ laster jakingo du (egia).
- \_\_\_\_\_ ez dute ekarri (liburua).
- \_\_\_\_\_ (gutunak) banatu ditu.
- \_\_\_\_\_ (museo berria) dauka.
- \_\_\_\_\_ ez dut bazkaldu (ezer).
- \_\_\_\_\_ (altxor preziatuak) zeuzkaten.

Ohar zaitetz goiko esaldietako subjektuek zerbait dutela amankomunean: objektu bana dute (osagarri zuzena). Aditzak bereziak dira: denek NORK behar dute subjektuan.

Osa ezazu NORK sintagmako egitura hauek:

- NORK {
- honek, \_\_\_\_\_ , \_\_\_\_\_ . (singularra)
  - hauek, \_\_\_\_\_ , \_\_\_\_\_ . (plurala)
  - nik, \_\_\_\_\_ , \_\_\_\_\_ , \_\_\_\_\_ , \_\_\_\_\_ , \_\_\_\_\_ .
  - etxeak (sing.) ; \_\_\_\_\_ . (plur.)
  - Bilbok , ...

ORAIN JARRI SUBJEKTUA HURRENGO ESALDIEI

1. \_\_\_\_\_ lau ate ditu.
2. \_\_\_\_\_ ere badaki zer egin.
3. \_\_\_\_\_ ez dugu horrelakorik erosiko.
4. \_\_\_\_\_ ez du jadanik Athletic-en jokutzen.
5. \_\_\_\_\_ irabazi du jokoan?
6. Irakasle \_\_\_\_\_ azaldu zuen zergatik.
7. Aitorrek ez, \_\_\_\_\_ esan zigun.
8. \_\_\_\_\_ irabazi omen zuen apustua.
9. \_\_\_\_\_ erabaki behar duzu arazo horretan.
10. \_\_\_\_\_ esan nion gurera etortzeko.

c) IRAKUR ITZAZU ONDOKO ADIBIDEAK:

Guk atzo sagarrak jan genituen.

Zuek zer daramazue hor?

Zerk ikaratu zaitu (zu)?

Anderrek erlojua ostu zigun.

Ni ez nau inork eraman nahi.

Eta zuk ez didazu ezer kontatuko?

Goiko adibideetan NOR eta NORK ageri dira esaldi guztietan. Horrela denean, NORK izaten da subjektua eta NOR haren objektua.



Azpimarra itzazu goiko adibideetako NOR eta NORK guztiak eta esan zein den subjektua eta zein objektua.

BI SINTAGMAK SUBJEKTU-OBJEKTU BEZALA (ORDENA HONETAN) ERABILIZ, ESALDI BANA ASMATU BEHAR DUZU HURRENGOEKIN

1. Ama, aholkuak: \_\_\_\_\_ Amak aholkuak ematen dizkigu beti.
2. Gurasoak, notak:
3. Gizon hura, sustoa;
4. Mikel, giltzak:
5. Ni, zu:
6. Ni, Miren:
7. Asier, filma:
8. Prezioa, ni:
9. Hori, umeak:
10. Sendagilea, gaisoa:

HURRENGO PERPAUSETATIK ZENBAIT TXARTO DAUDE. ZUZEN ITZAZU.

1. Hori esan nahi du gu ez dakigula ezer.
2. Gu hogeita hamahiru ikasle gara.
3. Izaskunek etorri zenean gu ez geunden etxean.
4. Ni esango dizut zer egin behar duzun.
5. Esan duzuna ez du garrantzi handirik.
6. Zu nahi baduzu, guk ere joango gara.
7. Nork esan du horrek egia dela?
8. Liburu hori diru asko balio omen du.
9. Jokalariak ederki aritu ziren partiduan.
10. Hori da hogeita bat urte dituen.
11. Maisua esan duenez, horrek ez du garrantzirik.
12. Irratiak esan du Clinton-ek dela presidente berria.
13. Ordenagailuak ez dabil ondo; zerbaitek apurtu zaio, antza.
14. Garbitzaileak kristal guztiak garbitu zituzten atzo.

BEGIRA NOR ETA NORK SINTAGMA HAUEN ERABILEREI

- Sevillan bizi denak badaki beroa zer den.
- Horrela pentsatzen duena ez da, ez, oso normala.
- Horrek benetakoa dirudi.
- Hori ez dut nik asmatu; zeuk esanda dakit.

ARIKETA: JARRI AMAIERA (NOR EDO NORK) HURRENGO HITZEI

1. Zuk ekarri dituzun ak ez ditut gustuko.
2. Gure alde dauden\_\_\_ esan dezatela argi eta garbi.
3. Aitziber\_\_\_, Areetan denda duena, bizilekua aldatu du.
4. Film hor\_\_\_ luzaroan iraun zuen ikusgai.
5. Garai hartan ezer\_\_\_ ere ez gintuen ikaratzen.
6. Ez nuen sartu nahi, baina jende\_\_\_ bultzaturik sartu nintzen.
7. Azkena sartu zen\_\_\_ eraman zuen Txerrenek.
8. Nik ikusi dudan\_\_\_ bada, gero, kontatzeko modukoa.
9. Ekarri zizkiguten\_\_\_ ez zuten ezertarako balio.
10. Ertzain\_\_\_ aginduta, autoa bazterrean aparkatu zuten.


## ARIKETA: EGIZU ESALDI BANA ALBOKO HITZAK SUBJEKTU DIRELA

1. .... (zu)
2. .... (Asier)
3. .... (Asierrek)
4. .... (nik)
5. .... (Maite)
6. .... (Iñakik)
7. .... (gu)
8. .... (dagoena)
9. .... (guk)
10. .... (amama)



ARIKETA: SARTU PERGAMINOKO HITZAK HUTSUNEETAN

1. \_\_ \_ ere berandu helduko naiz bihar.
2. \_\_ \_ zer egingo zenuke horrelako egoera batean?
3. Non daude zurekin etorri \_\_\_\_\_ ?
4. Hori da \_\_\_\_\_ , nire arreba.
5. \_\_\_\_\_ ez du zentzurik, erokeria dirudi.
6. Zer esan dizute Durangotik etorri \_\_\_\_\_ ?
7. Ez, ez, \_\_ \_ ez gaitu inork ikusi.
8. Hemen \_\_\_\_\_ ba al daki zer gertatu den?
9. \_\_\_\_\_ ikaratu zaituzte hainbeste?
10. Horrek bai, baina \_\_ \_ ez dakigu nora joan.
11. \_\_ \_ zara leihotik jausi zinena?
12. Bai, \_\_\_\_\_ da gezurra esan diguna.



JAR IEZAIEZU SUBJEKTUA HURRENGO ESALDIEI

1. Hamaika bider esan dizuegu garaiz etortzeko..... (\_\_\_\_\_)
2. Ez, ez naiz irtengo oraingo asteburuan..... (\_\_\_\_\_)
3. Zer ekarri zenuen zeure azkeneko bidaian? ..... ..(\_\_\_\_\_)
4. \_\_\_\_\_ etorri zaizue esamesa horiekin? ..... (\_\_\_\_\_)
5. Badut gogoa, gero, horra joateko! ..... (\_\_\_\_\_)
6. Ez zaigu asko gustatu.....(\_\_\_\_\_)
7. Berangoraino eramango gaituzu? .....(\_\_\_\_\_)
8. Ez da umore onean etorri.....(\_\_\_\_\_)
9. Zazpiak baino lehenago etorriko gara..... (\_\_\_\_\_)
10. Nora joan behar duzu larunbat arratsaldean? ..... (\_\_\_\_\_)



**Etorri dena (erlat.) eta etorri dela -DBH 3-**

IRAKURRI ETA BEREIZI HURRENGO EGITURAK, HUTSUNEEI DAGOKIEN FORMA JARRIZ:  
zidana, duela, zidala, duena

- Nik banuen txakur bat beti-beti obeditzen \_\_\_\_\_ .
- Geuk ere badaukagu irakasle bat azterketarik jartzen ez \_\_\_\_\_ .
- Susmatzen dugu neskato ilehoriak ba\_\_\_\_\_ zerikusia apurketarekin.
- Honelaxe erantzun zuen: berak ez \_\_\_\_\_ xentimorik emango.

<p>IDATZ EZAZU ARAUA</p> <p>• _____</p> <p>Adibidea:</p> <p>• _____</p> <p>Adibidea:</p>
--

\_\_\_\_\_ ARIKETA \_\_\_\_\_

- Jar itzazu aditz formok zein bere lekuan:  
(dena-ziotena-dela-ziotela-duena-zuena-zuela-direnak-lioketenak-zena)
1. Ba omen zen behin neskatotxo bat Txano Gorritxo esaten \_\_\_\_\_ .
  2. Irratian entzun dut eguraldia laster aldatuko \_\_\_\_\_ .
  3. Lehengo egunean zirkoan ikusi genuen gizon bat ahotik sua jaurtitzen \_\_\_\_\_ .
  4. 1997a izan zen lehen urtea HSAOL delakoa eman \_\_\_\_\_ .
  5. Pilotarien artean badira gutxienez dozena bat horri irabaziko \_\_\_\_\_ .
  6. Gure izeko Miren, Venezuelan bizi \_\_\_\_\_ , laster ezkontzekoa da.
  7. Bizi-bizi esan zioten ertzainek hurrengoan isuna jarriko \_\_\_\_\_ .
  8. Eta esan zigun, ba, aurten Gabonetako oporraldia etxekeekin emateko asmoa \_\_\_\_\_
  9. Txorierrin ba ei da errementari bat azkar eta fin lan egiten \_\_\_\_\_ .
  10. Hamaika emakume dago munduan giza -eskubideak zapaldirik bizi \_\_\_\_\_ .



*Eraman dit eta eramau nau*

**-DBH 3-**

IRAKURRI ETA BEREIZI HURRENGO EGITURAK, HUTSUNEEI DAGOKIEN FORMA JARRIZ:  
didazu, nauzu, zioten, zuten

- Eramango al \_ \_ \_ \_ \_ Donostiara?
- Eramango al \_ \_ \_ \_ \_ pakete hau Donostiara?
- Hain ziren desberdinak, ezin \_ \_ \_ \_ \_ elkar ikusi.
- Hasieran haserre samar ibili baziren ere, azkenean musu eman \_ \_ \_ \_ \_ elkarri.

— PASADIZOA —

Plaentxiatik Eibarrera egunero ostera egiten duen Turkua errekadistari jazo zaiona da. Goizean ba omen zihuan betiko moduan Eibarrerantz bere kamionetan eta Maltzaga inguruan Eibarko gazte batek, autostopean, gelditzeko zainua egin zion, esanaz:

—Turkua, Eibarrera eramango didazu?

Eta Turkuak atzera begiratu barik erantzun omen zion:

—Bai, bota ezazu gainera.

Turkuak gelditu barik aurrera jarraitu zuen, eibartar gaztea errepide bazterrean ahoa bete haginekin lagata.

\* \* \* \* \*

---Azal ezazu Turkuaren jokabidea eta bai gaztearen harridura ere---

.....

.....

.....

.....

.....

IDATZ EZAZU ARAUA

• Zenbait adizkik \_\_\_\_\_ (bi/hiru) elementu eskatzen dituzte esaldian: \_\_\_\_\_ (NOR eta NORK / NOR, NORI eta NORK). Adibidez:

*Nik Umeak zinemara eramango ditut*

• Beste adizki batzuek \_\_\_\_\_ (bi/hiru) elementu behar dituzte: \_\_\_\_\_ (NOR eta NORK / NOR, NORI eta NORK), hala nola:

*Nik umeei sarrerak eramango dizkiet zinemara*



ARIKETA (I)

Jar itzazu aditz laguntzaileok zein bere lekuan

**(nau-digu-gaitu-zaituzte-dizue-dizut-zaitut-dute-du-die)**

1. Horrek ez \_\_\_\_\_ guri batere kalterik egingo.
2. Ez duzula autorik ekarri? Lasai, neuk eramango \_\_\_\_\_ .
3. Antzokitik irtetea ikusi \_\_\_\_\_ bere laguna.
4. Andonik esan du berak ekarriko \_\_\_\_\_(e)la zuei giltza.
5. Ez \_\_\_\_\_ sekula ikusi jertse hori. Noiz erosi duzu?
6. Gu, behintzat, poz-pozik jarri \_\_\_\_\_ berri horrek.
7. Nik agurtzen badut ere, berak ez \_\_\_\_\_ inoiz ere agurtzen.
8. Gure seme-alabek oso maite \_\_\_\_\_ osaba Julen, haiekin ezin jatorragoa da eta.
9. Zeuen gogoz egin duzue ala inork behartu \_\_\_\_\_ ?
10. Izekok gutuna bidali \_\_\_\_\_ loba guztiei Londresetik.

ARIKETA (II)

Aukera ezazu adizki egokia eta jarri hutsunean.

1. Izan ere, sekula ez \_\_\_\_\_ ezerk hainbeste ikaratu. (**dit / nau**)
2. Utziko \_\_\_\_\_ zurekin sartzen? (**didazu / nauzu**)
3. Mozorroturik sartu badira ere, ezagutu \_\_\_\_\_. (**diete / dituzte**)
4. Utziko ahal \_\_\_\_\_ behingoz bakean! (**digu / gaitu**)
5. Bihotz-bihotzez maite \_\_\_\_\_ esan dio egia. (**diolako / duelako**)
6. Dirudienez, azkenean ez \_\_\_\_\_ baimenik emango. (**digute / gaituzte**)
7. Ez \_\_\_\_\_ harriturik utzi Aitorren aldaketak? (**dizue / zaituzte**)
8. Bai, animatu \_\_\_\_\_, bai, aurrera jotzeko, baina... (**digute / gaituzte**)
9. Zatozte, zatozte nirekin, neuk eramango \_\_\_\_\_. (**dizuet / zaituztet**)
10. Ez daukat, ez, liburua; ostu egin \_\_\_\_\_. (**didate / naute**)

### ***Eraman zidan eta eraman ninduen -DBH 3-***

Irakurri eta bereizi hurrengo egiturak. Hutsuneetan jarri forma egokia.

#### **genuen - genion - ninduen - zidan**

1. Ez zuenez autorik, guk eraman \_\_\_\_\_ Mikel etxera.
2. Eskatu ez banion ere, etxeko atariraino ekarri \_\_\_\_\_.
3. Mesede gisa, umea ikastolaraino hurbildu \_\_\_\_\_ Itziarri.
4. Neuri ere opari polita ekarri \_\_\_\_\_ Parisetik.

Osatu hurrengo arauak. Erabili parentesi arteko aukerak.

ARAUAK Aukeratu: *bi/hiru* edo *Nork-nor / Nork-nori zer*

- Adizki batzuek ..... elementu eskatzen dituzte esaldian: .....

Esate baterako: **Guk Mikel etxera eraman genuen**

- Beste batzuek ..... elementu eskatzen dituzte: .....

Esate baterako: **Guk Mikeli katua etxera eraman genion**

Jar itzazu ondoko adizki laguntzaileak dagokien esaldian:

#### **gintuzten-nizun-nuen-ninduen-zidan-gintuzuen-zeniguten-zituzten-zieten-ziguten**

1. Haiek azken zatian bost metroko abantaila atera \_\_\_\_\_ denoi.
2. Nik zeuri ere argi eta garbi esan \_\_\_\_\_ zer egin behar zenuen.
3. Ez zuten zintzo jokatu eta bultzaka-bultzaka gu denok pistatik atera \_\_\_\_\_ .
4. Larri ikusi \_\_\_\_\_ eta berarengana hurbildu nintzen laguntza ematera.
5. Zur eta lur utzi \_\_\_\_\_ zuen ateraldiarekin.
6. Pena eman \_\_\_\_\_, baina ezin eman genizuen ezelango laguntzarik.
7. Ilargirik gabeko gau batean irten nintzenez, ezin \_\_\_\_\_ inork ikusi.
8. Niri garai hartan iluntasunak ez \_\_\_\_\_ ikararik sortzen.
9. Jantzi nabarmenekin etorri ziren eta denek ondo ikusi \_\_\_\_\_ .
10. Beste taldekoak baino askoz hobeak ziren eta ez \_\_\_\_\_ irabazteko aukerarik eman.

Idatzi hutsuneetan bikoteetako forma egokia.

#### **ziguten/gintuzten,zidan/ninduen,ziguten/gintuzten,nizun/zintudan,zidan/ninduen**

1. Joan ziren eta bakean utzi \_\_\_\_\_.
2. Aurretik nuen bide luze-luzeak atzera bota \_\_\_\_\_
3. Eman \_\_\_\_\_ erantzuna badaezpadakoa izan zen.
4. Ez zara kexatuko, ba! Ia-ia etxeraino eraman \_\_\_\_\_
5. Gezur galanta esan \_\_\_\_\_





IRAKURRI ETA BEREIZI HURRENGO EGITURAK, HUTSUNEEI DAGOKIEN FORMA JARRIZ:  
elkarrekin, elkarren, elkar, elkarri

- Asierrek Amaia barkatu zuen eta honek Asier ere bai; hortaz, \_\_\_\_\_ barkatu zuten.
- Entzugo dizut, bai, baldin eta zuk ere nirea entzuten badidazu: \_\_\_\_\_ entzugo diogu.
- Auto biak \_\_\_\_\_ kontra joan ziren.
- Ez zara bakarrik joango; \_\_\_\_\_ joango gara.

--- PASADIZOA ---

Hego Haizea baino zaharragoa zen asto itsu bat zeukan Pernandok kortan. Saltzera eramanda ere inork erosiko ez ziola eta, han zeukan erdi-goserik. Asto harekin ez zeukala atarramenturik eta beste bat erosi zuen. Baina ez zuen zorte handirik izan harekin ere, etxera eramanez eta gero konturatu baitzen hura ere itsua zela.

Hurrengo feria egunean bi asto itsuak hartu eta Tolosara joan zen. Erosle bat gerturatu zitzaion eta galdetu zion:

—Asto horiek salgai dauzkazu, Pernando?

—Bai, halaxe dauzkat ba.

—Eta ez daukate akatsik?

—Ez, akats handirik ez. Hauek daukaten gauzarik txarrenea elkar ezin dutela ikusi... Horixe.

—Horixe besterik ez bada...

Eta gizarajoak bi astoak erosi zitzaion Pernandori. Pernandok pozik alde egin zuen handik Amezketara.

Eroslea, osterara, laster konturatu zen bi astoak itsuak zirela, ez baitzuten pauso bat ere zuzen ematen. Arin-arinka abiatu zen Pernandoren bila. Amezketarako bidean harrapatu zuenean:

—Adizu, ba al dakizu zer egin didazun? Bi asto itsu saldu dizkidazu. Emadazu atzera dirua eta har itzazu ezertarako balio ez duten asto zahar horiek.

—Ez, gizontxo, ez. Astoak erosi baino lehenago garbi asko esan nizun elkar ezin zutela ikusi. Hala ere, erosi egin zenizkion. Zeurea izan da errua. Hor konpon!

#### IDATZ EZAZU ARAUA

- Elkar izenordainak ..... ordezkatzeko du.


Adibidea:



ARIKETA

• Bete itzazu esaldiotako hutsuneak, pergaminoko hitzak erabiliz

1. Asto haiek, izan ere, ezin zuten \_\_\_\_\_ ikusi.
2. Ez izan beldur, \_\_\_\_\_ eskua emanda sartuko gara.
3. Ez diozu bakarrik joaten utzi behar. Zoazte \_\_\_\_\_ !
4. \_\_\_\_\_ artean egin behar duzue lantxo hori, ez bakarka.
5. Nik banuen hari zer irakatsi eta berak niri ere bai; hortaz, hainbat ikasi genuen \_\_\_\_\_ .
6. Bata besteagandik urrun zeuden eta ahaleginak egin zituzten \_\_\_\_\_ hurbiltzeko.
7. Horiek beti dabiltza berdin: \_\_\_\_\_ kontu-kontari.
8. \_\_\_\_\_ maitatzean omen datza zoriontsu bizitzea.



**Joan naiteke / Egin dezaket**
**-DBH 3-**

Begiratu ondoko perpausei:

- Zazpiak aldean irten ahal naiz.
- Nire ustez, gehiago egin ahal duzu.
- Ekarri ahal dituzu nire lagunak?

Ezin esan dezakegu esaldiok txarto daudenik; hala ere, askoz ere egokiagoak lirateke beste modu honetara:

- Zazpiak aldean irten naiteke
- Nire ustez, gehiago egin dezakezu
- Ekar ditzakezu nire lagunak?

Ohar zaitetz beste hauetaz ere:

- Ekarri ahal dituzu, baina Ekar ditzakezu

- |             |   |         |
|-------------|---|---------|
| -ela        | ⇒ | -keela  |
| • -ke + -en | ⇒ | -keen   |
| -enik       |   | -keenik |
| - ...       |   |         |

Adibidez: irits daitezkeela, sar gaitzkeenik...

Ordezka itzazu perpausotako aditzak ahalerazko formez. Zalantza kasuetan ikus ondoko laukiak.

1. Bai, bai, zuekin joan ahal gara.

2. Ahal duzue pasatu pitxerra?

3. Zer egin ahal dugu orain?

4. Nork kontatu ahal du gertatu dena?

5. Aitor etorri ahal da gurekin?

6. Gaur ez, baina bihar joan ahal naiz.

7. Pianoa jo ahal duzu?

8. Bakarrik hiru txakur atera ahal dituela?

9. Gelditu ahal zarete hemen itxaroten.

NORK	hura	haiek
nik	dezaket	ditzaket
hik	dezakek/n	ditzakek/n
hark	dezake	ditzake
guk	dezakegu	ditzakegu
zuk	dezakezu	ditzakezu
zuek	dezakezue	ditzakezue
haiek	dezakete	ditzakete

NOR	
ni	naiteke
hi	haiteke
hura	daiteke
gu	gaitzke
zu	zaitzke
zuek	zaitzketete
haiek	daitezke



Beheko aditz zerrendan bila ezazu esaldi bakoitzari dagokiona eta jarri hutsunean. Ondo egiten baduzu, aditzen ondoko silabekin atsotitz bat irten beharko zaizu.

1. Nik ez, baina zuk bai, zuk egin \_\_\_\_\_.
2. Guk ezin ordain \_\_\_\_\_ hainbeste diru.
3. Aurrera, Kepa, pasa \_\_\_\_\_.
4. Maratoi korrikalariak berrogei kilometro eten gabe korrika egin \_\_\_\_\_.
5. Hi, neska, pozik egon \_\_\_\_\_, ez da ezer gertatu eta.
6. Ez dut uste nire lagun guztiak etor \_\_\_\_\_enik.
7. Postal bat jaso baduzu, laster beste batzuk jaso \_\_\_\_\_.
8. Etorri nahi ez baduzue, etxean gera \_\_\_\_\_.
9. Ariketak ondo egiten badituzue, araua atera \_\_\_\_\_.
10. Honaino heldu gara, baina ezin sar \_\_\_\_\_ barruraino.

- zaitezke -----(rra)
- haiteke -----(kol)
- ditzakezu -----(a)
- dezakezu -----(al)
- gaitezke----- (na)
- dezakezue -----(ze)
- dezakegu -----(fe)
- ditzakete -----(ren)
- zaitezkete -----(zu)
- daitezke -----(pe)

**ATSOTITZA:**

.....

.....

**JAR EZAZU ARAUA**

a) Ahalerazko laguntzaile batzuk (*naiteke, daiteke...*) objekturik gabeko aditzekin erabiltzen dira, subjektua ..... delarik. (Jarri *NOR* edo *NORK*)

Adibidez:

- Ni .....
- ..... gaitezke.
- Itziar .....

b) Ahalerazko beste zenbait laguntzaile (*dezaket, ditzakegu...*) objektudun aditzekin erabiltzen dira, subjektua ..... dutelarik. (Jarri *NOR* edo *NORK*)

Adibidez:

- ..... ditzakezu.
- Zuk .....
- ..... amai .....

c) Indikatiboazko formekin (*ahal naiz, ahal dut...*) aditz nagusia ..... erabiltzen da: *ekarri, jaitsi...* (Jarri osorik edo -ren oina)

d) Ahalerazko formekin (*naiteke, dezaket...*) aditz ..... erabiltzen da: *etor, ekar ...* (Jarri osoa edo oina)

**ematen didazu eta emango didazu -DBH 3-**

Begiratu hurrengo esaldiei eta jar itzazu ondoko adizkiak zein bere lekuan.

- Egunero \_\_\_\_\_ nahigaberen bat edo beste!
- Aizu, \_\_\_\_\_ horko liburua, ahal baduzu?
- Alabari gehienetan gauetz irteten \_\_\_\_\_?
- \_\_\_\_\_ gauzak pixka bat azaltzen?

uzten diozue / emango didazu / utziko didazue / ematen didazu

**ARAUAK**

- Galdera baten bitartez eskaera bat egiten denean *emango, utziko, esango...* / *ematen, uzten, esaten...* formak erabiltzen dira.
- Maiztasuna edo ohiturazko ekintza denean, *emango, utziko, esango...* / *ematen, uzten, esaten...* formak erabiltzen dira.

Bete itzazu hutsuneak bikoteetako bat erabiliz.

1. E, Jon, \_\_\_\_\_ (*esaten / esango*) didazu zer gertatu zaizun?
2. \_\_\_\_\_ (*Uzten / Utziko*) diguzue zehaztapen bat egiten?
3. Zer \_\_\_\_\_ (*esaten / esango*) diozu Arantxari ikusten duzun guztietan?
4. \_\_\_\_\_ (*Pasatzen / Pasatuko*) dizkidazu arkatza eta borragoma?
5. Etxean erretzen \_\_\_\_\_ (*uzten / utziko*) dizute?
6. Zozketa batean parte hartzeko txartelak saltzen nabil; baten bat (*erosten/erosiko*) didazue?
7. Ez dakigu orain Maider etxean dagoen ala ez; \_\_\_\_\_ (*deitzen / deituko*) dugu jakiteko?
8. Baina, \_\_\_\_\_ (*esaten / esango*) didazu nondik zatozen halako orduetan?
9. Zer, orain \_\_\_\_\_ (*egiten / egingo*) dugu ala beste baterako (*uzten / utziko*) dugu?
10. Olentzerori urtero gauza bera \_\_\_\_\_ (*eskatzen / eskatuko*) diozu?
11. Eta orain zer \_\_\_\_\_ (*egiten / egingo*) dugu?
12. Elkarrekin \_\_\_\_\_ (*joaten / joango*) gara ala bakoitza bere aldetik?
13. Non \_\_\_\_\_ (*ikusten / ikusiko*) duzue akatsa? Nire ustez, ederto dago.
14. Bilbora bazoaz \_\_\_\_\_ (*eramaten / eramango*) diozu hau Aitorri?
15. Zer, \_\_\_\_\_ (*joaten gara / joango gara*) antzerkira?

**Dago eta egoten da****-DBH 3-**

Irakurri eta bereizi hurrengo egiturak. Hutsuneetan jarri forma egokia.

- Deitu etxera Mikeli; ordu honetan bertan \_\_\_\_\_ .
- Deika eta deika nabil, baina ez \_\_\_\_\_ inor, antza.
- Eta orain? Ez \_\_\_\_\_ zer egin!
- Horrelako kasuetan nik, gehienetan, \_\_\_\_\_ zer egin.

dago / dakit / egoten da / jakiten dut

**ARAUAK**

Osa ezazu araua ondoko esaldien jarraipena behekoetan bilatuz eta hutsunean berridatziz.

- Hitz batez osatzen diren adizkiak (*dago, dakizu, gabiltza...*) ...

.....  
.....

- Bi hitzez osaturiko adizkiak (*egoten da, jakiten duzu, ibiltzen gara...*) ...

...une jakin batean kokatzen dira, ekintza puntukaria adierazten dute.

...ohitura edo maiztasunaren adierazgarri dira, hots, ekintza sarri gertatzen dela.

Jar ezazu hutsuneetan bikoteetako forma egokiena:

1. Hantxe \_\_\_\_\_ beti, jatetxearen atarian, bezeroak noiz harrapatuko. (dago / egoten da)
2. Zabilta kontuz horrekin! Ezagutzen dut eta ez da txantxetan \_\_\_\_\_. (dabilenetakoa / ibiltzen denetakoa)
3. Batzarrak gehienetan Areto Nagusian \_\_\_\_\_. (dira / izaten dira)
4. Horrelako gauzak gertatzen direnean nik ez \_\_\_\_\_ zer egin. (dakit / dut jakiten)
5. Zer \_\_\_\_\_ lapurrak atxilotu zutenean? (zeraman / eramaten zuen)
6. Sarri \_\_\_\_\_ umea haurtzaindegira? (daramazue / eramaten duzue)
7. Baina, baina... zer \_\_\_\_\_ hor eskuartean? (dakartzue / ekartzen duzue)
8. Nondik nora \_\_\_\_\_ astegun arratsaldeetan? (zabiltzate / ibiltzen zarete)
9. Atzo telebistari begira \_\_\_\_\_ loak hartu zuen. (zegoela / egoten zela)
10. Guk gehienetan ez \_\_\_\_\_ toailarik hondartzara. (daroagu / dugu eroaten)
11. Eta orain nora \_\_\_\_\_ ? (zoazte / joaten zarete)
12. Zein da zure iritzia? Zer \_\_\_\_\_ horretaz? (diozu / esaten duzu)
13. Goizero \_\_\_\_\_ ordu erdi inguru autobusari itxaroten. (dago / egoten da)
14. Gehienetan sasoz \_\_\_\_\_ (gabiltza / ibiltzen gara), baina gaur berandu \_\_\_\_\_. (gabiltza / ibiltzen gara)
15. Eta oraingoan zenbat diru \_\_\_\_\_ Anjelek aldean? (darama / eramaten du)

**Izango zen eta izango litzateke -DBH 3-**

Begiratu ondoko perpausei eta jarri aditzak zein bere lekuan:

- Eta orain zer egin? Ba, onena zera izango \_\_\_\_\_ ... (*zen / litzateke*)
- Atzo zeu ere egon bazina lehenago amaituko \_\_\_\_\_ (*genuen / genuke*).
- Zer egingo \_\_\_\_\_ (*zenuen / zenuke*) sari hori lortuko bazenu?
- Aitorrek esan zidan bera ere etorriko \_\_\_\_\_ (*zela / litzatekeela*).

**ARAUA**

**-n** amaiera duten adizkiek (*zen, genuen...*) \_\_\_\_\_ (iragana / etorkizuna) adierazten dute, hau da, ekintza \_\_\_\_\_ (gertatua / gertatu gabea) dela.

**-ke** bukaera duten adizkiak (*litzateke, genuke...*) \_\_\_\_\_ (geroari / iraganari) begira daude, ekintza \_\_\_\_\_ (gertatua / gertatu gabea) dela adierazten dutelarik.

Aukera eza zu adizki egokia:

1. Zuk orain egin beharko \_\_\_\_\_ (*zenuena / zenukeena*) zera da: itxaron.
2. Orain nagoen moduan ikusiko baninduzue, barre egingo \_\_\_\_\_ (*zenidaten / zenidakete*).
3. Atzokoan irabazi balute lehenengo jarriko \_\_\_\_\_ (*ziren / lirateke*)
4. Beranduago heldu balira ez \_\_\_\_\_ sartzen utziko. (*zieten / liekete*)
5. Hain toki ederra zela \_\_\_\_\_ (*jakin bagenu / jakingo bagenu*), den-denok joango ginen ikustera.
6. Gure abisua jaso izan bazenu ez \_\_\_\_\_ berandu helduko. (*zinen / zinateke*)
7. Askoz hobeto egingo \_\_\_\_\_ etxean gelditu izan bazina. (*zenuen / zenuke*)
8. Geuri ere esan ziguten atzo bostak aldean helduko \_\_\_\_\_. (*zirela / liratekeela*)
9. Neu ere joango \_\_\_\_\_ (*nintzen / nintzateke*), ahal banu.
10. Egia esango \_\_\_\_\_ (*nizun / nizuke*), baina ez dakit zelan hartuko zenukeen.
11. Zoragarria izango \_\_\_\_\_ (*zen / litzateke*) gurekin etorriko bazinete.
12. Egunero kalera atera beharrik ez balego, hartuko \_\_\_\_\_ (*genuen / genuke*) txakurra.
13. Baten batek horretaz galdetuko balizu, zer erantzungo \_\_\_\_\_ (*zenion / zenioke*)?
14. Bene-benetan: behin probatuko bazenu, gustatu egingo \_\_\_\_\_ (*zitzazun / litzazuke*).
15. Itziarren lekuan egon bazinete, zeuek ere gauza bera egingo \_\_\_\_\_ (*zenuten / zenukete*).
16. Adeitsuki eskatuko bazenio, hark gogo onez emango \_\_\_\_\_ (*zizun / lizuke*).
17. Kontzertu hura hain garestia zela aurrez jakin bagenu, ez \_\_\_\_\_ (*genituen / genituzke*) sarrerak erreserbatuko.
18. Inor lapurretan harrapatuko bazenu, zer esango \_\_\_\_\_ (*zenion / zenioke*) ?
19. Hark ere lagunduko \_\_\_\_\_ (*zigun / liguke*), hemen egon balitz.
20. Zer esango \_\_\_\_\_ (*zizueten / lizuekete*) gurasoek, hemen horrela ikusiko bazintzate?



*egitea eta egiteko*

**-DBH 3-**

Begiratu hurrengo esaldiei eta jar itzazu ondoko adizkiak zein bere lekuan.

- Denok nahi dugu behingoz \_\_\_\_\_ .
- Irakasleak ikusi barik \_\_\_\_\_ esan nion.
- Espero dute lan guztiak urtarrilerako \_\_\_\_\_ .
- Gurekin \_\_\_\_\_ esan genion.

emateko / etortzeko / amaitzea / atertzea

ARAUAK

- Esaldi nagusiko aditzak **nahia** edo guraria adierazten badu, beste esaldikoak \_\_\_\_\_ -tzea / -tzeo hartzen du.
- Esaldi nagusiko aditzak **aginduren bat** adierazten duenean, beste esaldikoak \_\_\_\_\_ -tzea / tzeo hartzen du

Bete itzazu hutsuneak bikoteetako bat erabiliz.

1. Zazpiak arte \_\_\_\_\_ (*itxarotea / itxaroteko*) eskatu ziguten.
2. Egun hura ahalik arinen \_\_\_\_\_ (*bukatzea / bukatzeko*) besterik ez genuen nahi.
3. Bihurrikeriak egiteagatik patioa \_\_\_\_\_ (*garbitzea / garbitzeko*) agindu zioten.
4. Nahi nuke, ba, zuek ere gurera \_\_\_\_\_ (*etortzea / etortzeko*).
5. Pakete guzti-guztiak \_\_\_\_\_ (*jasotzea / jasotzeko*) ere esan ziguten.
6. Arbitroak ez du esan joko \_\_\_\_\_ (*gelditzerik / gelditzekorik*) .
7. Hamaika aldiz esan diot kontuz \_\_\_\_\_ (*ibiltzea / ibiltzeko*).
8. Desiratzen nago zuek oportretan \_\_\_\_\_ (*ikustea / ikusteko*).
9. Azterketa hura etxean sinaturik \_\_\_\_\_ (*ekartzea / ekartzeko*) esan zion maisuak.
10. Lanak garbiago eta txukunago \_\_\_\_\_ (*aurkeztea / aurkezteko*) esan ziguten.

**Oharra:** ezezkoetan, -tzerik eta -tzezorik erabili ohi dira:

- *Ez zidan esan ezer ekartzekorik*
- *Ez nuke gura nirekin haserretzerik*



Begiratu hurrengo esaldiei eta jar itzazu ondoko adizkiak zein bere lekuan.

1. Eleberri hura ez genuen gustuko, baina irakasleak \_\_\_\_\_ zigun.
2. Harekin hitz egin nahi zutela eta lehenbailehen \_\_\_\_\_ zuten.
3. Amarruak eta trikimailuak erabiliz egia \_\_\_\_\_ zioten.

etorrarazi / irakurrarazi / esanarazi

#### ARAUAK

Aditz arazleak sortzeko :

- Oinarri gisa, *aditz oina soilik (irakur, etor...)/aditz forma aspektuduna (irakurri, etorri...)* jartzen da.
- *Arazi / erazi* forma erabiltzen da beti.
- Emaidza *loturik / bereiz* idazten da.

Salbuespena: *adierazi*

Jar itzazu hurrengo adizkiak zein bere lekuan.

ulertarazi -jaitsiarazi -ordainarazi -sinestarazi -errearazten -etorrarazi -emanarazi -igoarazi -janarazi

4. Automobila txarto aparkatzeagatik isun galanta \_\_\_\_\_ zioten.
5. Larunbat goiza izan arren, lantokira \_\_\_\_\_ gintuzten.
6. Zuria beltz dela \_\_\_\_\_ nahi ote didazu?
7. Garaile irten zen korrikalariari estadioari beste itzuli bi \_\_\_\_\_ zizkion publikoak.
8. Txikitan jatun txarra zen eta hainbat gauza \_\_\_\_\_ behar izan zioten.
9. Ostera ere hamabosgarren pisuraino \_\_\_\_\_ zidan.
10. Salmenta multzo handiak Bilboko burtsa ikaragarri \_\_\_\_\_ du.
11. Zelan azal diezaiokegu berriz ere, problema \_\_\_\_\_ nahi badiogu?
12. Tabakorria erretzen dabilenak nolabait ingurukoei \_\_\_\_\_ omen die.

Lotu alboko aditz arazleak euren definizioarekin.

- |                                    |               |
|------------------------------------|---------------|
| 1. Zerbait aditzera ematea         | itzularaztea  |
| 2. Norabait sartzera behartzea     | pentsaraztea  |
| 3. Zerbait atzera eman eragitea    | ordainaraztea |
| 4. Zer pentsatua ematea            | itzalaraztea  |
| 5. Gauzaren bat erostera behartzea | adieraztea    |
| 6. Argiak amatatu eragitea         | sarraraztea   |
| 7. Nahi ez dela zeozer jatea       | janaraztea    |
| 8. Gogoz bestera ordaintzea        | erostaraztea  |